ZIZURKILGO UDALA

## OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2018ko urriaren 1a, astelehena**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

### EGUNEKO AZTERGAIAK

**1.- AURREKO UDALBATZARRARAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2018.07.24).**

**2.- ZIZURKILGO HIRI ANTOLAMENDU PLAN OROKORRAREN AIU 31 "PEROT" ETA AIU 32 "ALTZITURRI" EREMUETAN HIRIGITZA HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

**3.- 2019 URTERAKO TAXI TARIFAK ONARTZEA.**

**4.- LANPOSTUEN ZERRENDAN ETA PLANTILA ORGANIKOAN ALDAKETAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

**5.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (153/2018tik 197/2018ra).**

**6.- GALDE-ESKAKIZUNAK.**

Zizurkilen, 2018ko irailaren 26an

Alkatea.

## CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **1 de Octubre de 2.018, lunes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

### ORDEN DEL DÍA

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (24.07.2018).**

**2.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL CONVENIO URBANISTICO REFERIDO A LOS AMBITOS AIU 31 "PEROT" Y AIU 32 "ALTZITURRI" DEL PLAN GENERAL DE ORDENACION URBANA DE ZIZURKIL.**

**3.- APROBACION DE LAS TARIFAS DE TAXI PARA EL AÑO 2.019**

**4.- APROPBACION, SI PROCEDE, DE MODIFICACIONES EN LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO Y PLANTILLA ORGANICA.**

**5.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (153/2018 al 197/2018).**

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Zizurkil, 26 de Septiembre de 2.018

El Alcalde.

ZIZURKILGO UDALA
ALKATEGOA

Teodoro Hemandorena, 6 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12 – Fax: 943 69 32 00 – e-posta: zizurkilgoudala@zizurkil.eus
Elbarrena Auzoan: Ernio Bidea, 9-A behea (Pasus Plaza) – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12 – Fax: 943 69 36 74
www.zizurkil.eus

**2018ko URRIAREN 1ean EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DIA 1 DE OCTUBRE DE 2.018**

**Partaideak/ Señores Asistentes:**

**ALKATEA/ALCALDE:**
José María Luengo Zapirain Jauna (EH Bildu)

**ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:**
Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)
Arkaitz Zaldua Jauregi (EH Bildu)
Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.)
Eva Usandizaga Mujika (EH Bildu)
José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak)
María Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)
Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.)
Jon Ander Esnaola Arruti (EH Bildu)
Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu)

**IDAZKARIA /SECRETARIO:**
José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hemezortziko urriaren bateko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) eta Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziak ez dira etorri.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día uno de Octubre de dos mil dieciocho, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) y Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.).

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2018.07.24).**

Udalbatzak, aho batez erabaki du 2018ko uztailaren 24an egindako Bilkuren Aktak onartzea.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (24.07.2018).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 24 de Julio de 2.018

Teodoro Hemandorena, 6 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12 – Fax: 943 69 32 00 – e-posta: zizurkilgoudala@zizurkil.eus
Elbarrena Auzoan: Ernio Bidea, 9 behea (Pasus Plaza) – 20159 Zizurkil - Tel: 943 69 10 12
www.zizurkil.eus

**2.- ZIZURKILGO HIRI ANTOLAMENDU PLAN OROKORRAREN AIU 31 "PEROT" ETA AIU 32 "ALTZITURRI" EREMUETAN HIRIGITZA HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Zizurkilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "Perot" 31. hirigintza-jarduerarako eremuko eta "Altziturri" 32. hirigintza-jarduerarako eremuko gaur egungo jabeek Udalari proposatu diote bi jarduera ezartzeko aukera izatea garai batean Perot lantegia zegoen tokian gaur egun dauden industria-instalazioetan, alde batetik, toki horretara eramateko beraiek Adunan gaur egun aurrera daramaten produktu izoztuen jarduera logistikoa (Frila, S.L.), eta, beste aldetik, pabiloia bigarren jarduera batekin betetzeko. Horretarako, aldatu egin beharko lirateke gaur egun indarrean dagoen eremu horretako arau bereziko zehaztapenak, bere garaian horrela onartu baitziren azken berrogei urteotan eremu horretan etenik gabe garatu den industria-jarduera mantentzeko premisarekin.

Partikularrek eta Udalak hainbat elkarrizketa izan ondoren, tramitera aurkeztu da Zizurkilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "Perot" 31. hirigintza-jarduerarako eremuari eta "Altziturri" 32. hirigintza-jarduerarako eremuari buruz Udaleko zerbitzu teknikoek idatzitako hirigintza-hitzarmena.

Aipatutako hirigintza-hitzarmena eta espedienteko dokumentazioa ikusi ondoren, udalbatzak gaiari buruzko bozketa egin du, eta honako emaitza hau atera da:

- Alde: 9 (6 de Bildurenak, 2 de E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzarrak, 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriko 8. atalean xedatutakoari jarraiki, aho batez, erabaki du:

**2.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL CONVENIO URBANISTICO REFERIDO A LOS AMBITOS AIU 31 "PEROT" Y AIU 32 "ALTZITURRI" DEL PLAN GENERAL DE ORDENACION URBANA DE ZIZURKIL.**

Los actuales propietarios particulares de la AIU 31 "Perot" y AIU 32 "Altziturri" del Plan General de Ordenación Urbana de Zizurkil, han propuesto al Ayuntamiento la posibilidad de implantar dos actividades diferentes en las actuales instalaciones industriales de la extinta Perot, en primer lugar para trasladar a ellas la actividad logística de productos congelados que ellos mismos desarrollan actualmente en el municipio de Aduna (Frila, S.L.) y además en orden a permitir la colmatación del pabellón con una segunda actividad, lo que requiere de una modificación de las determinaciones de ordenación de la vigente Norma Particular del ámbito aprobada bajo la premisa del mantenimiento de la actividad industrial que en él se ha venido desarrollando ininterrumpidamente por una única actividad durante los últimos cuarenta años.

Fruto de las conversaciones mantenidas entre los particulares y el Ayuntamiento, se presenta a tramitación el convenio urbanístico referido a los ámbitos AIU 31 "Perot" y AIU 32 "Altziturri" del PGOU de Zizurkil que ha sido redactado por los servicios técnicos municipales.

Visto el mencionado convenio urbanístico además de la documentación existente en el expediente, la Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (6 de Bildu, 2 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, en aplicación de lo dispuesto por el apartado 8 de la Disposición Adicional Séptima de la Ley 2/2006, acuerda por unanimidad:

Teodoro Hemandorena, 6 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12 – Fax: 943 69 32 00 – e-posta: zizurkilgoudala@zizurkil.eus
Elbarrena Auzoan: Ernio Bidea, 9 behea (Pasus Plaza) – 20159 Zizurkil - Tel: 943 69 10 12
www.zizurkil.eus

Lehena.- Zizurkilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "Perot" 31. hirigintza-jarduerarako eremuko eta "Altziturri" 32. hirigintza-jarduerarako eremuko hiri-antolamenduan eta beste zenbait alorretan aldaketa jakin bat egiteko hirigintza-hitzarmena proposamenari hasierako onarpena ematea.

Primero.- Aprobar inicialmente la propuesta de Convenio Urbanístico para la modificación puntual de la ordenación urbana y otros extremos del AIU 31 "Perot" y AIU 32 "Altziturri" del Plan General de Ordenación Urbana de Zizurkil.

Bigarrena.- Hitzarmen hori jendaurrean jartzea, hogei eguneko epean, testua osorik argitaratuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, interesdunek espedientea aztertzeko eta egoki deritzen alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Segundo.- Someter dicho Convenio al trámite de información pública, por plazo de veinte días mediante la publicación de su texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, al objeto de que los interesados puedan examinar el expediente y formular las alegaciones que estimen pertinentes.

**3.- 2019 URTERAKO TAXI TARIFAK ONARTZEA.**

Gipuzkoako Taxi Elkartea (AGITAX)-ek eskatuta, Tolosaldea Garatzenek Tolosaldeko hiri eremuan 2019 urterako taxi zerbitzuen tarifak % 2,30 igotzeko proposamena aurkeztu du.

Proposamena ikusi ondoren, Udalbatzak hau onartzeko dagokion bozketa egiten du, emaitza honekin:

- Aldeko botoak: 9 (6 Bildurenak, 2 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Auzkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

beraz, legezko gehiengo absolutu aldeko botoekin, onartu da:

Lehena.- 2018 urterako taxi tarifak honakoak izango dira:

**3.- APROBACION DE LAS TARIFAS DE TAXI PARA EL AÑO 2.019**

A petición de la Asociación Guipuzcoana del Taxi (AGITAX), Tolosaldea Garatzen ha presentado una propuesta para incrementar en un 2,30 % las tarifas unificadas de taxi en la comarca de Tolosaldea para el año 2.019

Vista la propuesta, la Corporación, procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (6 de Bildu, 2 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

por lo que, con el voto favorable de la mayoría absoluta legal, se acuerda:

Primero.- Que las tarifas de taxi para el año 2.018 sean las siguientes:

| TARIFAK<br><br>TARIFAS | ABISARIA<br><br>BAJADA DE BANDERA | KILOMETRO BAKOITZEKO<br><br>POR KILOMETRO RECORRIDO | ZAIN EGONDAKO ORDUA<br><br>POR HORA DE ESPERA |
|---|---|---|---|
| 1. TARIFA | 4,1993 | 1,0309 | 18,6929 |
| 2. TARIFA | 4,7393 | 1,5683 | 27,5355 |

- Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko bidaia eta 5 minutuko itxarondenbora barne ditu.
- 1. tarifa lanegunetan aplikatuko da, 07:00etik 22:00etara.
- 2. tarifa egun guztietan aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Igandeetan, erkidegoko eta tokiko normatibak arautako jaiegunetan eta larunbatetan, 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.

Bigarrena.- Erabaki honen berri AGITAXi, Tolosaldea Garatzen S.A. eta Industria, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Gipuzkoako Lurralde Bulegora bidaltzea.

- La tarifa mínima incluye 1,5 kilómetros de recorrido y cinco minutos de espera.
- La Tarifa 1 es aplicable los días laborables entre las 07:00 y las 22:00 horas.
- La Tarifa 2 será aplicable todos los días desde las 22:00 horas hasta las 7:00 horas. Se aplicará igualmente desde las 07:00 a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados.

Segundo.- Comunicar este acuerdo a AGITAX, a Tolosaldea Garatzen S.A. y la Oficina Territorial de Industria, Comercio, Consumo y Turismo de Gipuzkoa.

**4.- LANPOSTUEN ZERRENDAN ETA PLANTILA ORGANIKOAN ALDAKETAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketen berri ematen da.

Aldakata hauek dira: alde batetik "Peoi-Lurperatzaile" lan-itunpeko langilearen postua amortizatzea eta bestetik "Era askotako zerbitzuen ofiziala" funtzionario postu bat sortzea.

**4.- APROBACION, SI PROCEDE, DE MODIFICACIONES EN LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO Y PLANTILLA ORGANICA.**

Se da cuenta de la propuesta de modificación de la Plantilla Orgánica y la Relación de Puestos de Trabajo.

Esta modificación consiste en la amortización del puesto de trabajo de personal laboral de "Peón-Enterrador" y la creación de un nuevo puesto de funcionariado de "Oficial de servicios múltiples"

Espedientea ikusi da eta Pertsonalaren Batzordearen aldeko irizpena ikusi ondoren, Udalbatzak hau onartzeko dagokion bozketa egiten du, emaitza honekin:

- Aldeko botoak: 9 (6 Bildurenak, 2 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Auzkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

beraz, legezko gehiengo absolutu aldeko botoekin, onartu da:

Lehena.- Udal honetako Plantila Organikoaren eta Lanpostu Zerrendaren aldaketari hasierako onarpena ematea, espedientean ageri den testuarekin. Aldaketa I Eranskinean zehazten da.

Bigarrena.- Aipatutako aldaketa jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hamabost egun balioduneko epean. Epe horretan interesdunek Udalbatza aurrean erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da aldaketa.

Hirugarrena.- Aldaketa behin betiko onartua ondoren, oso-osorik argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Visto el expediente y el dictamen favorable de la Comisión de Personal, la Corporación, procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (6 de Bildu, 2 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

por lo que, con el voto favorable de la mayoría absoluta legal, se acuerda:

Primero.- Aprobar inicialmente la modificación de la Plantilla Orgánica y de la Relación de Puestos de Trabajo de este Ayuntamiento, con el texto que figura en el expediente. La modificación se muestra en el Anexo I

Segundo.- Exponer al público la mencionada modificación, durante el plazo de quince días hábiles a contar desde el siguiente al de publicación del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, durante los cuales los interesados podrán examinarla y presentar reclamaciones ante el Pleno. La modificación se considerará definitivamente aprobada si durante el citado plazo no se presentan reclamaciones.

Tercero.- Una vez aprobada definitivamente la modificación, ésta se publicará íntegramente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**5.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (153/2018tik 197/2018ra).**

2018ko uztailaren 19tik irailaren 25era Alkateak sinatutako 153/2018tik 197/2018ra zenbakia duten Dekretuen berri eman da. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**5.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (153/2018 al 197/2018).**

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 153/2018 al 197/2018 firmados por la Alcaldía entre el 19 de Julio y el 25 de Septiembre de 2.018, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

**6.- GALDE-ESKAKIZUNAK.**

José Antonio Sánchez zinegotziak (S.V.-E.S.) gai hauei buruzko informazioa eskatu du:

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

El concejal José Antonio Sánchez (S.V.-E.S.) solicita información sobre los siguientes temas:

- Asteasuko errekak sedimentu asko ditu Elbarrenako tunelaren eta errekak ibaiarekin bat egiten duen tokiaren artean. Komenigarria izango litzateke garbitzea, neguko euriteak hasi aurretik, arazorik ez egoteko.

- La regata Asteasu tiene muchos sedimentos entre el túnel de Elbarrena y su desembocadura. Sería conveniente su limpieza, antes de que lleguen las lluvias de invierno y puede haber problemas.

- Udalerriko bideen seinaleztapena nahiko urria da: trafikoko seinale batzuk falta dira, eta eremu batzuetan zebra-bideen falta sumatzen da, ez daudelako edo kolorea galduta daudelako. Azkenportuko biribilgunearen arrisku-indizea, abiadura murrizteko gailuen premia Ugare auzoan…

- La señalización vial del municipio es bastante deficiente: faltan algunas señales de tráfico, en algunas zonas se echan de menos pasos de cebra que, o no existen o están despintados. Peligrosidad de la rotonda de Azkenportu, falta de reductores de velocidad en el vial de Ugare auzoa,…etc.

Alkateak erantzun dio Asteasuko errekako sedimentu gehienak landaretzak direla, eta euritea iristean eta paper-fabrikako presa irekitzean, desagertu egingo direla.

El Alcalde le contesta diciendo que los sedimentos de la regata Asteasu son en su mayoría vegetación y que cuando vengan las lluvias y se abra la presa de la papelera, desaparecerán.

Bideen seinaleztapenari dagokionez, azterketa bat egingo da zer behar dauden ikusteko, hondatuta daudenak aldatzeko eta beharra ikusten den tokietan berriak jartzeko.

En cuanto a la señalización vial, se realizará un estudio para ver las necesidades que existen, tanto para cambiar las que estén deterioradas como para poner unas nuevas allí donde se vean necesarias.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hogeitabost minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y veinticinco minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.

O.I. ALKATEA.

Vº Bº EL ALCALDE.

ZIZURKILGO UDALA ALKATEGOA

ZIZURKILGO UDALA

# I ERANSKINA – ANEXO I

## 2018. URTEKO PLANTILA ORGANIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIORENTZAT GORDETAKO PLAZAK

ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA

| *Izena* | *Kopurua* | *Taldea* | *Egoera* |
|---|---|---|---|
| Era askotako zerbitzuen ofiziala | 1 | C2 | Hutsik |

## PLANTILLA ORGANICA PARA EL AÑO 2018

PLAZAS RESERVADAS A FUNCIONARIOS DE CARRERA

SUBESCALA DE SERVICIOS ESPECIALES

| *Denominación* | *Plaza* | *Grupo* | *Situación* |
|---|---|---|---|
| Oficial de servicios múltiples | 1 | C2 | Vacante |

## 2018ko LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTAK

| **Identifikazioa** | | | | | | | **Eskaturiko baldintzak** | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| LK | Izena | D | PS | DM | LO | O Berezia | T | E | Azp. | Tit. | Baldintza Bereziak | H E | Der. Data | Oharrak |
| 17 | Era askotako zerbitzuen Ofiziala | 1 | L | 1 | 14 | 14.818,67 | C2 | AB | 5.2 | 200 | C Gida baimena | 2 | 18.10 | Lurperatzaile lanak + % 5 |

## RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO DE 2018

PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL FUNCIONARIO DE CARRERA

| **Identificación** | | | | | | | **Requisitos exigidos** | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| CP | Nombre | D | SP | DE | CD | C Específ. | G | E | Sub. | Tit. | Requisito especifico | P L | Fecha Percep | Observacion |
| 17 | Oficial de servicios múltiples | 1 | L | 1 | 14 | 14.818,67 | C2 | AB | 5.2 | 200 | Carnet conducir C | 2 | 10.18 | Trabajos enterrador + 5 % |

Teodoro Hemandorena, 6 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12 – Fax: 943 69 32 00 – e-posta: zizurkilgoudala@zizurkil.eus
Elbarrena Auzoan: Ernio Bidea, 9 behea (Pasus Plaza) – 20159 Zizurkil - Tel: 943 69 10 12
www.zizurkil.eus